

B

BARREN



Denona, denontzat



K.E.Y. hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19 behea - Tel: 943 74 30 44

Uztailaren 1etik 24ra ingeleseko ikastaroak goizez.

- Haur eta gazteentzako eskolak orokorrean.
- Laguntza eskolak: - Lehen hezkuntza
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
 - Batxilergoa.

Izen ematea ekainaren 26ra arte.

DEITU INFORMAZIO GEHIAGO ESKATZEKO.



CAMBRIDGE Unibertsitateko
Azterketetarako Batzordeko kidea ES438



- ◆ 2008/2009 ikasturterako matrikula zabalik.
- ◆ Haurrak eta gazteak, ingelesa, frantsesa eta alemana.
- ◆ Cambridge azterketen prestakuntza.
- ◆ Young Learners, Ket, Pet, First Certificate



3. maila = EGA
Iraileko azterketak
prestatzeko eskolak
UZTAILEAN eta IRAILEAN
Izena eman 24a arte

Ikasle, guraso eta langabetuek
matrikula erdia
Udalaren laguntzari esker

AEK EUSKALTEGIA

Plaza Txikia 3, 1.
943 741 332 - elgoibar@aek.org



Eskerrik asko 'fitipaldis' eta gurasuok



Orain dela lau urte, 12 urteko umetxo batzuk gerturatu jatazen, eskubaloian jokatzeko ilusioa zaukela eta. Baina ez naban imajinatzen lau urte hauetan halako taldea egingo gendunikan! Zuekin igaro dotena, ezin da eskutitz baten idatzi, eta badakizue orain arte ezin izan dizuetela gauza askorik ere esan! Eskerrak eman nahi dizkizuet, onduan egon zeraten daneri, jokalaria, guraso, lagun, entrenatzaile...! Jakin egizue, denbora guzti honetan asko lagundu didazuela, zuek pentsau baiño gehixago (ezin ahaztu Igor *Le-chuan*, Irati *Txoni* eta Antxon *Txonan*, aurten nere onduan egon diranak).

Hau ez da eskubaloia bakarrik, gu danon artian famili handi bat izatia lortu dogu kirol honen kontura!

Momentu txarrak eta onak bizi izan dittugu. Baiña halakuetatik ere gauza positibuak etarutzen jakin dogu, bestela ez giñan honaiño helduko!

Hrro sentitzeko moduan gaude, lortu doguna lortu eta gero, eta ez kirol arluan bakarrik!

Neskak, kristonak zerate, eta ez eskubaloian bakarrik! Aparteko girua sortu dogu taldian, eta hori da inportantiena! Mesedez ez aldatu iñoiz, eta segi orain arte modokuak izaten!

Aintza, Ainhoa, Belza, Iñi, Esti, Amaia Asti, Urain, Maite, Maria, Kris eta Izas (bueno, holan deitzen dizuet nik!), jakin egizue hemen egongo naizela nahi dozuenerako, ez bakarrik eskubaloia entrenatzaile moduan, baizik eta lagun moduan!

Ezin ahiztu ere gurekin aurten egon diran beste ekipuetako jokalarixak: Ainhitze, Garazi, Maialen, Ros eta Osoro!

"Goazen sanlo goazen, goazen txapeldun!". Eskerrik asko.

PD: Ekaiñaren 13an, bixar, afarixa eukiko dogu, *asi ke* (neskak oinguan lagunduko dizuet!) gurasuok, oinguan pixkat gehixago laga txikixeri kalien geratzen! Ja, ja!

Lorea Gabilondo

.....
**"Neskak, kristonak zerate, bai eskubaloian, eta baita izakeraz ere!
 Kriston girua sortu dogu taldian, eta hori da inportantiena!"**

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**IPUINAK ETA
 TABERNAKO
 DEMONINOLOGIA
 BLOGA
 ESTREINATU
 DUGU!**



**Egin
 klik
 eta
 ikusiko
 duzu**

www.elgoiBARREN.net



Trinitateek eman dute berea

Eguraldiak Trinitate jaiak errespetatu zituen, iragarpenak kontrakoa esan arren. Tarteka euri zaparrada bat edo beste bota zuen, baina, oro har, ekitaldi guztiak ondo burutu ziren. Elgoibartarrez gain, kanpotik etorritako jende asko ibili zen jaietan, eta giro bikaina izan zen. Musika, danbor hotsa, eta jai-giroa izan ziren protagonistak. Jarraian bildu ditugu asteburuko hainbat argazki.

Bideoak eta argazki gehiago: www.elgoiBARREN.net



Zezenzikletak, Kiribilka, txaranga eta buruhandiak izan ziren barixakuan. Madalako parkea inauguratuta gelditu zen.



Gastadoreen konpainia estreinakoz irten zen Nagusien Danborradan.



Musika Eskolaren 25. urteurrenari eskaini diote umeen danborradako karroza.



Elgoibarko baserrietako animaliak izan ziren ferriako protagonista.



Domekako artisauek azokan, abileziak erakutsi zituzten sauk. Argazkian egurra lantzen duen gizona.



Euskal ezkontza irudikatu zuten danborradan.



Soarteren idi pareak bi plaza eta lau metro egin zituen Harri Beltzarekin. Ikusmin handia sortu zuen ekitaldiak.



Danborradako sukaldariak ondo baino hobeto egin zuten euren lana.



Musika Eskolako ikasleen dantza ikuskizunak jende asko bildu zuen Plaza Handian.



Elgoibarko nostalgikoek izugarri disfrutatu zuten Expression Sonoraren kontzertuarekin.



Madalako Jai Batzordeak antolatuta, sagardo dastaketa izan zen.



Umeen danborradan iñude eta artzain txiek ere hartu zuten parte.



Eskuz eginiko hamaika lan ikusi eta erosteko aukera izan zuten artzain azokara hurbildu zirenek.



izten arti-



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Madalako jai batzordearen eskertza

Madalako jai batzordea osatzen dugun talde eta norbanakoen aldetik, Trinidad Jaen inguruan antolatutako ekitaldietara hurreratu edota parte hartu duzuen guztiei eskerrak ematea da gutun honen helburua. Lehenik eta behin, sagardo dastaketan parte hartu zenuten zazpi baserrii gure eskerrik beroenak. Datorren urtean ere Elgoibarko sagardo freskoa edateko izan gaituzela. Bejondeizuela!

Sagardoa probatzera hurbildutakoei eta iluntzean *Festetan ere burua erabili* jaira, txapela, ileordea, zapia edo dena delakoa hartuta, gaztetxera hurreratu zinetenei ere esker mila. Biba zuek!

Bukatzeko, hau posible egin duzueinei ere gure eskerrik beroenak: Jabi, Munlet, Zigor, Txako, Doc. Koyamantado eta batera eta bestera lanean jardun dezuten batzordekideei ere, besarkada eta muxu potolo bana. Hurrenguan gehiago!

Madalako Jai Batzordea ☺

Europarekin abiadura handiko konexiorik gabe gelditu da 'Euskal Y'-a

Frantziako Gobernuak AHTaren proiektua Ipar Euskal Herrian geldiaraztea agindu du: Landen Hegoaldetik Behobiaraino zihoan AHT berriaren erai-kuntzarako edozein azterketa eta ekin-tza bertan behera uztearekin batera, Baionako Iparraldetik Hendaiaraino doan egungo trenbide-sarea hobetzeko konpromisoa hartu du, kostu ekonomi-

ko, sozial eta ekologikoak murriztea bilatuz eta tokiko herritarren interesak kontuan hartuz.

1) *Euskal Y*-a Europarekin abiadura handiko konexiorik gabe geratu da. AHTak Iparraldea ibilbide konbentzionaletik zeharkatuko du.

2) Europako Batzordeak Davignon Txostenean oso oharpen argia egin du: *euskal Y*-aren proiektua diseinatua dagoen bezala, "geroz eta gehiago zuzentzen da batez ere bidaiarien eskualde ar-teko garraioari begira, merkantzien nazioarteko garraioari espazio gutxi utziz". Errepideak harrigarri arintzeko *euskal Y*-aren bidez trenen gainean kamioi osoak garraiatzearen proiektua martxan jartzearen bideragarritasuna erabat zalan-tzan geratu da.

3) Frantziako Kontu Auzitegiko txostenen arabera, abiadura handiko proiektuen errentagarritasun sozio-ekonomikoaren tasak gogor jaisten ari direla-eta, abiadura handiko azpiegitura berriak eraiki gabe, trenbide konbentzionaletik sareak hobetzearen aldeko apustua egi-tea gomendatzen dute.

Azkenik, ingurumenaren alde diharduten elkarten koordinazioa, CADE, zoriondu nahi dugu, inposatu nahi zuten AHTaren inguruan aurkakotasun zabalarri bide eman baitio Lapurdin, inoiz ikusi ez den mobilizazio mailarekin.

Horregatik, *euskal Y*-aren lanak gelditu eta gatazkari arrazionaltasuna emateko aukera gal ez dezan eskatzen diogu Eusko Jaurkitzari. Halaber, datorren

ekainaren 13an Itsasondo-Ordizia, Bilbo eta Arrasaten egingo diren manifestazioetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

AHT Ez Elgoibar ☺

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Arkaitz Irureta

Eski denboraldixa bukatuta, atzera-aurrera nahikua CO2 isuri ondoren, kanpaina bukatu eta etxera bueltan datorren arrantzalia bezala ikusten jautan nere burua. Udana sarreria beti izaten dok arraro samarra neretzat: alde batetik, fisiko eta psikologikoki nekatuta, deskantsu biharraz iristen nok; baiña, bestetik, hainbeste izerdi kostatako sasoi puntu onenera iritsitakuan, geldittu biharrek pena ematen jak, eta berriz noiz jungo amesten hasten nok.

Piriniuetan mendi berrixen billa ibiltzen gaittuk batzuetan, mendi zaharrak gogoratzen bestietan. Baiña honek ez jaukak Piriniuen inbidixarik:

“Danak jaukak ordezkua naturatik babesteko. Ez ete gabiz aldrebes?”

Muskurutzun, esaterako, sentsazio bera eukitzen jautan juten naizen guztixetan. Batzuetan, betiko mendixakin topo egitten jaut, baiña, la-saittasun billa edo bide berrixak deskubritze aldera, pagadixetan sartzian gustora asko galtzen nok. Demasa dok herrixan bertan galdu ahal izatia. Ixa 30 urte bajaranadaz mendixa eta nere burua aurrez aurre bakardade horretan ikusten, eta, kuriosuena dok oraindik ere leku berrixekin topo egitten dotela.

Natura bere horretan sentitzia handixa dok, neguko eguzkixaren epeltasuna, udako kerizpeko siestia, Upaigoittiko baiña eta abar luze bat adibide...

Baiña, gaur egun, makinismo-gaingaratu honetan danak jaukak ordezkua naturatik babesteko; kalefaziak, aire egokittuak, klorodun piszinak... Dana asmatuta dagok, hain urrunera jun biharrik gabe, eta gu naturan murgildu eta berau babestu nahixan? Ez ete gabixaz geu aldrebes, Justo?



Justo Arriola



Ezetxian nagok, Arkaitz: ahuntzak beti mendira. Indigenok beti uste izan juagu geu garala Amalurranak, eta ez aldrebes. Egixa biribilla, Muskurutzun demasekua dok, urtaro guztixetan. Bertan jaukaguzen altxorrek deskubritzen jiharduak aspaldixan.

Neri ere gustatzen jatak bide zapalduetatik erten eta berrixak egittia. Hola ezagutu jaittuak bazter ezkutuuak, alde misterioitsuak, ur jauzixak, edurrezko katedralak, baita anai-arrebak ere: txorixak, ipuñetako zuhaitzak, aizerixak, erbixak, katagorixak...

Gustokuak ez dittutenak ere badittuk: piñudixak beste arbolen lekua kentziak, zakarrak, motorren arrastuak... Jakingo balebe gure arbasuak euren trikuharrixeri esker Karakate-lurkurutzeta gaiña ez debela industrializatu, Lurra merkantzia bat besterik ez balitz bezela. Zela erosi edo saldu leikek Atxolingo haizaren freskotasuna?

“Indigenok beti uste izan juagu geu garala Amalurranak, eta ez aldrebes”

Lehenguan, behe-laiñoiz inguratuta, pagadixan behera natorrela, zaunka senduak adittu eta animalixiaren atzetik jun nitzuan: zeezer somatuta-edo bueltia eman eta nereganatz abantatu zuan, hankahotsak hurrian entzuten najaituan, nere txakurra lepotik oratu eta makurtu egin giñuan eta... hara zein azaldu zuan: orkatza, adarrak tente-tente. Sei metro eskasetara, bixok elkarri begira egon giñuan segundu batzutan, nahikua, irribarrez etxeratu nedin, artian ikusi gabeko urki politten artetik.

“Naturarekin bat izan eta...” basuetako isiltasunian murgildu eta sentittu.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Madalako obrak bukatu dituzte, eta Santa Ana kale ingurua ere amaitzear da.

Zer iruditzen zaizu herria hartzen ari den itxura?



Rosa Labrador
53 urte, zaintzailea

Oso polita geratzen ari da. Madalan egin duten etorbide hori asko gustatu zait: loreak eta farol berriak oso ondo geratu dira. Orain, denon artean zaindu behar dugu, ondo kontserbatzeko. Santa Ana kaleak ere itxura polita hartu du, baina ez zait hainbeste gustatu.



Eneko Iturbe
19 urte, ikaslea

Ondo geratu da. Gainera, garai onean egin dituzte lanak, orain udarako dena polita egoteko. Apur bat desatseginak izan dira obrak, baina positiboa izan da. Niri gehien gustatu zaidana Madalako ingurunea izan da. Gune horrek asko irabazi du.



German Pedrosa
77 urte, jubilatua

Asko hobetu da Elgoibar, baina nire gusturako, Madalako parkean zuhaitz gutxi jarri dituzte. Jarlekuak eguzkitan daude, eta eserita egoteko gerizpeak falta dira. Hala ere, herriak behar duen obra garrantzitsuenak apartakalekuena da. Ea noiz egiten duten autoentzako leku gehiago.



Elena Rodriguez
32 urte, spinning monitorea

Gustatu zait Madala ingurua, batez ere, oso polita dago. Hala ere, jolas-tokia txikia iruditu zait. Parkean lekua soberan dago, kolunpio gehiago jarriko nituzke. Santa Ana kalea ere oso ondo geratu da. Hala ere, erdiguneko lurrari zeozker egin behar zaio, ez labantzeko.

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a



Idama



Maiatzeko irabazlea:
MARI CARMEN MARTINEZ

Ekaineko saria:
**ORRAZKERA +
MAKILLAJEA +
AZKAZALAK LIMATZEA
ETA ESMALTATZEA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26



LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tel.: 943 741 011

- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!



Eliza alboan egin dituzten etxe berriak leku kanpo daude:

“Plaza Handian egin dituzten etxe berriak ez zaizkit batere gustatu. Gainera, elizatik hain gertu, ez lukete ezer eraiki behar. Ikusten denez, saiatu dira udal-etxe eta elizako harriaren estiloari eusten, baina lehengo eraikin zaharra askoz dotoreagoa zen. Hura bota ondoren, ez zuketeen besterik egin behar, nire ustez”.



Lehen



Orain



Madalako parkean jarri dituzten komunak beste leku batean jarri beharko lituzkete: “Madalako parkea polita geratu da. Hala ere, parkean jarri dituzten komunak beste lekuren batean jarri beharko lituzketela iruditzen zait, ezkutuago. Gainera, parke azpian lehen ere bazeuden komunak, eta haiek txukuntzea beste aukera bat zen. Bista-bistan geratu dira komun berriak, eta ez zaizkit gustatu”.



Altzolako Zubibai elkartekoek Eibarbus enpresari txaloak eman nahi dizkiote: “Amaitzean den ikasturte honetan, Zubibai elkarteko gurasoek bereziki eskertu nahi dute Eibarbus enpresa. Izan ere, Altzolako eskola umeak behartuta zeuden 634 errepedea gurutzatzera eskolatik itzultzean, baina geltokia lekuz aldatuta, arrisku hori ebitatzea lortu du enpresak”.

Aurten 50 urte egin dituzten elgoibartarrek eskerrak eman nahi dizkiete kinto ospakizuna antolatu zutenei: “Eskerrik asko 1959an jaiotakoekin kinto eguna antolatu zuen lantaldeari! Egun zoragarria pasatu genuen, eta ahaztu ezina izango da. Partehartzaleen aldetik, mila esker”.

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

ESKERTZA

TXOMIN ETXEBERRIA AGOTE



2009ko ekainaren 5ean hil zen, 86 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Elgoibartarren erdiak baino gehiagok ez zuen bozkatu Europako Legebiltzarrerako Hauteskundeetan


EAJk, lehen indarrak, 600 boto galdu ditu, eta PSOEek eta ezker abertzaleak gora egin dute

Europako Parlamenturako Hauteskundeetan abstentzioa izan da nagusi Elgoibarren. Parteharitzea %42,88koa izan da, eta abstentzioa %57,12koa (2004an %50,52koa). Horrek eragina izan du emaitzetan, eta hainbat alderdik behera egin dute. EAJ-PNVk, esaterako, ia 600 bozka galdu ditu. Hala ere, bera izan da alderdi bozkatuena Elgoibarren, 1.252 boto-rekin.

Elgoibarko bigarren alderdia PSOE izan da. Sozialistek 140 bozka irabazi dituzte orain dela bost urteko hauteskundeak kontuan hartuz gero. 931 boto lortu dituzte, eta 2004an 788.

Irregularitasunak botoak kontatzean

Iniziatiba Internazionalistak irregularitasun nabarmenak salatu ditu hainbat herritako boto kontaketetan, tartean Elgoibarren. Datu ofizialaren arabera, 769 boto jaso ditu Sastresen alderdiak, baina 60 gehiago zenbatu ditu babesa dion ezker abertzaleak. Datu ofizialak egitean, horrenbestez, 829 botorekin gelditu liteke Iniziatiba Inter-



Behin-behineko datuak.

*HZren botoak ez ziren legalak 2004an. Iniziatiba Internazionalistarenak 60 gehiago izan litezke.

**EA eta Aralar bakoitza bere aldetik aurkeztu ziren 2004an. Aurten batera joan dira.



nazionalista. Era guztietara, hirugarren indarra da ezker abertzalea Elgoibarren, 2004an 651 bozka jaso baitzituen Herritarren Zerrenda plataforma ilegalizatuak.

PP alderdiak ezin izan die botoei eutsi, eta ehun bozka baino gehiago galdu ditu. 483tik 359ra.

EA eta Aralar alderdiek batera jo dute hauteskundeetara, Herrien Euro-

pa-Berdeak koalizioan. Bost urtean ia 200 bozka baino gehiago galdu dituzte bi alderdi horiek. 2004an 516 eskuratu zituzten (455 EAK eta 61 Aralarrek), eta aurten 302.

Ezker Batuak sekulako jaitsiera izan du, lehengo botoen erdiarekin gelditu baita. 2004ko hauteskundeetan 107 boto eskuratu zituen, baina orain 48 baino ez ditu lortu.

Udarako auzolandegia antolatu dute Karakaten



Kutxak eta Soraluzeko Udalak, Aranzadi zientzia elkartearen laguntzarekin, udarako auzolandegia antolatu dute Karakaten. Horri esker, Karakate-Irukurutzeta mendilerroko trikuharri eta mendi bideak berreskuratzeko aukera izango dute 22 gaztek. Horrez gain, Soraluzen eta Deba bailaran ekintza eta txango ugari egiteko aukera edukiko dute: Mutriku-Deba-Zumaia Flyscha ezagutu, Aranzadiko teknikariekin espeleologia, Luberrira bisitak eta abenturazko kirol ezberdinak egingo dituzte, besteak beste. Auzolandegia uztailaren 6tik 19ra izango da. Bertan parte-hartzeko Gaztekutxa txartelaren titularrak izatea beharrezkoa da. Izena emateko www.kutxasocial.net web gunean sartu daiteke.

Pertsonaia **Yulen**



Julian Zabaleta *Yulen* marrazkilaria 60 y *más* aldizkariko protagonista da hilabete honetan. Inmersok argitaratzen du zaharrentzat eta nagusien alde lan egiten duten erakunde eta profesionaltentzat. Espainian, batez ere, eta mundu guztian banatzen den aldizkariak 73.000 aleko tirada dauka. Ylenek 88 urte dauka, eta ume garaitik gaur egunera arte Elgoibarrek izan duen bilakaerari buruz hitz egiten du erreportajeon. Interesatuak, www.elgoiBARREN.net atarian irakur dezakete elkarrizketa hori.

Berbia **Kaleratzeak**

Sarasketa enpresak dauzkan 49 langileetatik 17 kaleratzeko erregulazio txostena aurkeztu du, enpresaren jabe den AIMT multinazionalak. CCOO sindikatuak "oso zorrotz" gaitzetsi du, Alemaniako eta Holandako multinazionalak aurkeztu duen txostena, eta, gainera, egoerari buelta emateko dirua jartzeko eskatu dio. Bestalde, erregulazio txostenak eragindako langileen gehiengoak 55 urtetik gora daukate eta kaleratzeak lan merkatutik "behin betiko zokoratzea" suposatuko lieke. Kaleratzeen kalte-ordainetan 500.000 euro ordaintzeko prest agertu da AIMTSarasketa. Sindikatua- ren iritziz, zuzendaritzak aurkeztutako galeren balantzea ez dator bat Sarasketaren benetako egoerarekin

Irudia **Trenbide kaleko zuhaitza**

Barrutik ustelduta zegoela-eta, abenduan Trenbide kalean bota zuten zuhaitzak badauka ordezkoa. Zuhaitz zaharra bezalaxe, hau ere arbustu japoniarra da. Lehen-goak 150 urte inguru zituen, eta ia hogei metro neurtzen zituen. Herritarrek estimu handia zioten zuhaitzari, eta askok nabaritu zuten haren falta. Beste zuhaitz bat landatuko zutela agindu zuten arduradunek, eta dagoeneko, bete dute emandako hitza.



Mendaroko Udalean bi lanpostu betetzeko deialdia

Mendaroko Udalak bi lanpostu egiteko lan deialdia egin du. Batetik, hainbat lan egingo dituen peoia behar da: parkeak, lorategiak, mendiak eta abar garbitzeko ardurak izango du, eta herriko mantntze lanak ere egin beharko ditu. Interesatuak ekainaren 17ra arteko epea daukate izena emateko. Bestalde, administrari laguntzaile bat ere behar dute. Kasu honetan, izena emateko epea ekainaren 30ean amaituko da. Informazio gehiago 943 033 282 telefonon.

Saharako umeak etxean hartzeko kanpaina

Uda honetan Saharako umeak etxean hartzeko kanpaina martxan da. Programa horretan parte hartu nahi dutenek Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailarekin harremanetan jarri daitezke, ekainaren 15a baino lehen.

Ikastolaren eguneko errifan saritutako zenbakiak

Ekainaren 7an egin zuten Ikastolaren eguneko errifaren zozketa. 4.283 zenbakiak jaso du lehenengo saria, eta irabazleak Belaustegi jate-txean bi lagunentzako afaria jasoko du. Errifa horren jabea agertu da, dagoeneko. Bigarren zenbakia 1.195 izan da (ordezkoa, 895). Irabazleak Markel Bergararen kamiseta, berak sinatutako baloia eta Real-Levante partidarako lau sarrera jasoko ditu. Informazioa, 943 744 441 telefonon.

1949koen kinto bazkaria

1949. urtean jaiotakoek kinto ospakizuna egingo dute ekainaren 27an. Belaustegi jate-txean izango da bazkaria, eta autobusa eguerdiko 14:00etan irtengo da Txankakuako autobus geltokitik. Interesatuak La Caixako 2100 4168 77 2100091490 kontu korrante zenbakian 70 euro sartu beharko dituzte, ekainaren 23a baino lehen. 615 758 480 telefonon informazio gehiago.

Gure berbak

Hiztegixa (8)

Euskera giputzera hurreratzen gaituen ezaugarri lexikuak jasotzen segituko dot gaurkuan ere.

Hitz berrixak sortzeko baliabidietan, atzizkixetan, nabarmentzekua da gure inguruan gertatzen dan bereizketa bat: batetik, Eibartik hasi eta Debagoienera eta mendebaldera erabiltzen dan -ZIÑO atzizki-aldaeria; bestetik, Elgoibarren hasi eta Debabarrenera eta ekialdera erabiltzen dan -ZIO alderia:

Hona Elgoibarren erabiltzen diran adibide batzuk:

- ◆ estaziua
- ◆ ba(r)kaziuak
- ◆ begittanziua
- ◆ konbestaziua
- ◆ buru-kantsaziua
- ◆ maldiziua
- ◆ intentziua
- ◆ habittaziua
- ◆ amorraziua
- ◆ operaziua
- ◆ ...

Eibarren, berriz, beste hauek jaso ditut hango euskera jasotzen daban liburu bikaiñetik (*Eibarko euskara. Gure hizketaren doinu eta berbak* (2005): A. Sarasua, A. Agirrebeña eta L. Zenarruza-beitia):

- ◆ estaziñua
- ◆ begittanziñua
- ◆ konbestaziñua
- ◆ buru-kantsaziñua
- ◆ maldiziñua
- ◆ intentziñua
- ◆ habittaziñua
- ◆ konparaziñua
- ◆ amorraziñua
- ◆ operaziñua
- ◆ ...

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1950

Juanito Gorostizak ekarri du aste honetako erretratu. 1950. urtekoa da, eta Desastre izeneko koadrila ageri da bertan. Erretratu atera zuten egunean, CD Elgoibarrek Touring de Renteria taldearen kontra jokatu zuen Oreretan, eta koadrila hau pankarta eta guzti, joan zen taldea animatzera. Azken emaitza 1-1 izan zen. Elgoibartarrek giro bikaina jarri zuten zelaian, eta egun ederra pasatu zuten. Gogora ditzagun mutil horien izenak:

Zutik, ezkerretik eskumara: Luis Arrieta, Luis Maria Ruiz de Gauna, Ramon Arozena (†), Rafael Areitioaurtena (†), Patxi Opakua, Jose Mari Ibarluzea (†), Jesus Mari Izagirre.

Makurtuta: Hilario Agirrebeña, Anjel Etxeberria (†), Antonio Gallastegi, Txomin Ondarre, Jose Irureta, Jose Luis Ansola eta Luis Maria Eguren (†).





ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENeN argitaratzeko
erretratu zaharrak baldin badituzu,
eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea.
Nafarroa Plaza 2, behea. 943 744 112 (Ainhoa)



Elgoibarren eta Mendaron ez dago BARREN ezagutzen ez duenik

Astekaria eskuartean hartzen dutenen %29k ez dakite euskaraz

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak BARREN astekariari buruzko ikerketa egin du. Batetik, BARREN astekariaren irakurleen perfila ezagutzea zen helburua, eta, bestetik, herritarren iritziak jaso nahi izan ditu elkarteak. Lan hori egiteko 15.000 euroko diru-laguntza eman dio Eusko Jaurlaritzak elkarteari.

Ikerketa lanak hiru zati izan ditu: lehenengoan idatzizko inkestak bidali zituen etxeetara BARRENek (4.500 guztira); bigarrenagoan, herriko hainbat eragilerekin hamabost elkarrizketa inguru egin ditu, euren iritzia jasotzeko; eta, hirugarrena, zatirik garrantzitsuena, telefonozko inkestak izan dira. Azken atal hori Aztiker, ikerketa soziologikoetan espezializatutako enpresak egin du. Elgoibar eta Mendaroko 725 etxetara deitu du, eta adin eta sexu diferenteetako herritarren iritziak jaso ditu.

Emaitzak oso onak izan dira, BARRENeko eta Elgoibarko Izarrako arduradunen ustez: irakurleek 7,7ko nota eman diote astekariari, eta ia herritar guztiak ezagutzen dute BARREN. Gainera, astekaria eskuartean hartzen dutenen %29k ez dute euskaraz ulertzen.

“Erdaldun dezentek irakurtzen du BARREN, eta horrek harritu gaitu gehien”

Iñaki Iurrebaso, Aztiker enpresako teknikaria



Iñaki Iurrebaso izan da BARRENen azterketa egin duten teknikarieta-ko bat. Gizarte gaietako buruzko ikerketak egiten dituzte Aztikerren: euskara, hedabideak, etxebizitza, gaztedia, etorkinak... gai ugariaren inguruko herritarren joera, iritzi eta jarrerak biltzen dituzte ikerketetan. Orain, BARREN izan dute aztergai. 725 telefono dei egin dituzte, irakurleen iritziak ezagutzeko, eta oso gustura geratu dira Elgoibar eta Mendaron izan duten harrerarekin. Elgoibarko Izarrari ere eskerrak eman nahi dizkiote, eurengan izandako konfiantzagatik.

Zer iruditu zaizkizu Elgoibarko emaitzak?

BARRENen ikuspegitik aztertuta, oso onak iruditu zaizkit. Izan ere, emaitzek argi islatzen dute BARREN aldizkariak Elgoibar eta Mendaroko herritarren artean duen harrera zabala. Ia guztiek ezagutzen dute, eta gehienek aldizkaria irakurtzeko ohitura dute. Ondorio nagusia, hortaz, BARREN aldizkariaren sendotasuna litzateke: ia jende guztiak ezagutzen du, eta gehienek irakurtzen dute. BARRENen ale bat herritarren %75 inguruk irakurri edo gainbegiratu ohi dute. Izugarritzko datua iruditu zaigu. Kontuan izan, adibidez, bi herri hauetan gehien irakurtzen den egunkaria, Gipuzkoa osoan bezala, *El Diario Vasco* dela eta, egunkari horren ale bat, batez beste, Elgoibar eta Mendaroko herritarren %38k irakurtzen duela. Bi datu horiek harremanetan jarrita, BARRENen ale bat *Diario Vasco*-ren ale baten bikoitza zabaltzen da. Izugarritzko datua iruditu zaigu.

Zerk harritu zaitu gehien? zer nabarmenduko zenuke?

Datuak xeheago begiratuta, BARREN irakurtzeko ohitura oso-oso errotua dago euskaldunen artean. Hau da, euskaldun ia guztiek dute aldizkari hori irakurtzeko ohitura. Horrek, egia esan, harritu egin gaitu. Baina horrek baino gehiago harritu gaitu erdaldunen artean eta euskaraz hitz

egiteko gai ez direnen artean ere, BARREN begiratzen dutenak badirela jakiteak. Eta ez gutxi gainera! Horrexek harritu gaitu gehien. Horrekin batera, zabaltasunaren ideia nabarmendu behar da: emakume zein gizon, zahar zein gazte, joera batekoak zein bestekoak... herritarren alor guztietara sendo iristen da BARREN.

700 etxe baino gehiagotara deitu duzue elkarrizketak egiteko. Zelan hartu zaituztete?

Ona, oso ona izan da Elgoibar eta Mendaroko herritarren harrera. Telefono bidezko 725 elkarrizketa egin ditugu aurtengo otsailean, eta ez da aparteko arazorik izan. Dena ondo joan da.

Herri aldizkariaren etorkizuna nolako izango da, zure iritziarekin?

Zoritxarrez, ez dugu kristalezko bolarik etorkizuna iragaritzeko. Hala ere, zalantzarik ez dago hedabideen merkaturan betetzen duten tokia erreparatuta, oso abiapuntu sendoa dutela. Errealitate sendo eta errotua direla, alegia. Izugarritzko sarbidea dute, oso alor sozio-demografiko eta ideologiko zabaletara iristen dira, eta herritarrek oso berekotzat, hurbilekotzat dituzte. Zer gertatuko den jakin ezin, baina etorkizunari begira aukera onak dituztela ezin uka.

Telefonozko inkesten metodologia

Unibertsoa: 15 urtetik gorako Elgoibarko eta Mendaroko herritarrak (11.247 lagun)

Lagina: 725 herritar, 626 Elgoibarren eta 99 Mendaron.

Landa-lana: 2009ko otsailaren 2tik 19ra bitartean egin da. Elkarrizketak euskaraz eta gazteleraz egin dira, elkarrizketatuaren nahiaren arabera.

Akats tarteak: +/- %3,2 lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailarekin.

Erabilitako teknika: Elgoibar eta Mendaroko biztanleei telefono bidezko elkarrizketa egituratua egin zaie.

Laginketa: Lagina unibertsoaren argazki ahalik eta fidelena izateko, bi urrats izan ditu laginketak:

lehenik, zori sistemaren bidez, kale eta atarien hurrenkeraren arabera erabaki zen zein etxetara deitu.

Ondoren, etxeetan kuoten sistema aplikatu zuten, sexu eta adinaren arabera oreka ziurtatzeko.

Ikerketako emaitzarik esanguratsuenak


Zenbat jende ezagutzen du BARREN?

15 urtetik gorako elgoibartar eta mendaroarren %98,3k ezagutzen dute BARREN, eta horietatik %91,4k inoiz irakurri edo gainbegiratu dute astekaria.




Zenbat denbora ematen du jendeak BARREN irakurtzen?

BARRENen irakurleek 29,2 minutu pasatzen dute batez beste astekaria irakurtzen.




Zenbat jende irakurtzen du BARREN astero?

Irakurle kopuruen portzentajeak kopuru absolutueta-
ra ekarriz, asteroko ale bakoitzak 8.500 irakurle inguru
ditu batez beste.




BARREN euskaldunen eskuetara bakarrik iristen da?

BARRENen irakurle gehienak euskaldunak dira. Baina, BARREN astero eskuetan hartzen dutenen artean, %29 erdaldunak edo euskaraz ulertzen ez dutenak dira. Gainera, BARRENekiko eta euskararekiko jarrera positiboa erakusten dute gehienek.




Badaukagu euskarazko aldizkariak irakurtzeko ohiturarik?

Jende gehienak BARREN bakarrik irakurtzen du euskaraz. BARREneko irakurleen gehiengoak (% 89,2) ez du etxean euskarazko bestelako aldizkariarik jasotzen. Eta, % 75ek ez dute euskarazko libururik irakurtzeko ohiturarik.




Zer nota eman diote herritarrek BARREni?

Herritarrek BARREni emandako batez besteko nota 7,7 da. Beheko taulan ikusten da oso jende gutxik eman diola nota baxua astekariari. Ia erdiak 8koa eman dio.




Garrantzitsua da BARREN elgoibartarontzat?

BARREN herriarentzat gauza ona edo oso ona dela uste dute %99,3k. Inork ez du esan BARREN astekaria herriarentzat txarra denik. Beraz, herritarrek BARREN astekaria beharrezkoa dela uste dute.



Zein da BARREN ondo baloratzeko arrazoi nagusia?


Ia erdiak gertuko informazioa baloratzen du gehienbat. Euskara sustatzea ere begi onez ikusten dute %28k, eta besteek, bi arrazoiak baloratzen dituzte ondo.



erketako emaitzarik esanguratsuenak Ikerketako emaitzarik esanguratsuenak Ikerketako emaitzarik


Zer iritzi dute irakurleek BARREneko euskarari buruz?

BARREneko irakurleen %58,5ek inolako arazorik gabe ulertzen dute astekariko euskara. Hala ere, gehiago dira Elgoibarko euskalkiari lehentasuna eman behar litzaiokeela pentsatzen dutenak.




BARREN aldizkari plurala da?

Irakurleen %93,4k BARREnek albisteak objektibotasunez tratatzen dituela uste dute, eta aldizkaria plurala dela diote %89k. Lerratua dela diotenen artean, EAJren eta ezker abertzalearen aldeko joera duela esan dute irakurleek. %58,1 lehenengoaren alde, eta %54,8 bigarrenengoaren alde.




Zelan tratatzen dira Udalaren gaineko albisteak?

BARREN inoiz irakurri duten bost herritarretatik lauk, Udaleko albisteak objektibotasunez tratatzen direla uste dute. Hori horrela ez dela diotenen artean, gehiago dira Udalaren aldeko jarrera ikusten dutenak, kontrakoak baino.




Udalak diru gehiago eman behar lioke BARREni?

Elgoibarko Udalak BARREN astekariko aurrekontuaren %20 finantzatzeko du, eta elkarrizketatuen gehiengoak gehiago eman behar lukeela uste du.




Nork argitaratzen du BARREN?

Elkarrizketatuen %69,3k ez dakite BARREN nork argitaratzen duen. Gainontzekoen artean, %92,7k badakite Elgoibarko Izarraren produktua dela, baina beste batzuk Udalak argitaratzen duela uste du.




BARREN ordaintzeko prest egongo lirateke elgoibartarrak?

BARREN doako aldizkaria izatetik, ordaindu behar izatera igaroko balitz, aldizkaria irakurtzen duten bi herenak ordaintzeko prest egongo lirateke.



Elgoibartarrok sartzen gara 'elgoiBARREN.net' atari digitalean?

Bost herritarretatik bik baino gehiagok (%42,5) ez du inoiz Internet erabili, eta %35 ia egunero ibiltzen dira Interneten. Erabiltzaile horien artean, ia erdia ez da inoiz sartu *elgoiBARREN.net* atari digitalean.



Atari digitalaren erabiltzaileek zer dute gustukoan?

www.elgoiBARREN.net ataria ezagutzen duten gehienek gustuko dutela diote. Atalen bat aipatzeko eskatuta, mediateka gustatzen zaie gehien erabiltzaileei.



Idatzizko inkestak eta elkarrizketa zehatzak

Telefonoz eginiko elkarrizketekin batera, idatzizko galdetegi bat banatu zituen BARRENEk, Elgoibar eta Mendaroko etxeetan. Horrez gain, herriko hainbat eragilerekin elkarrizketa espezifikoak egin ditu, BARRENi buruzko iritzia jasotzeko. Hona hemen bi lan horiek eman dutena.

Idatzizko inkestak

Fitxa teknikoa

- ✓ 4.500 inkesta banatu ziren Elgoibar eta Mendaroko etxeetan.
- ✓ 111 erantzun jaso ditu BARRENEk; 93 postaz eta 18 Internetez.
- ✓ 80 erantzun Elgoibartik idatzi dituzte, eta 11 Mendarotik. Internet bidez, bi izan dira Mendaroko erantzunak.
- ✓ Erantzunen artean, %64 emakumeak izan dira.
- ✓ 35 eta 54 urte bitartekoa izan da erantzuleen %41, %29 hortik beherakoa, eta, gainontzekoak, 55 urtetik gorakoak izan dira.
- ✓ Hitz egiteko orduan, euskaraz zein gazteleraz ondo moldatzen da %50,5. Bestalde, %42k errazago irakurtzen dute gazteleraz. Gainontzekoek bi hitzkuntzatan irakurtzen dute ondo.
- ✓ Erantzuleen %69k badakite Elgoibarko Izarrak argitaratzen duela BARREN.
- ✓ Postaz jasotako erantzunetatik, %62k ezagutzen dute *elgoiBARREN.net* atari digitala.

- ◀ Postaz jasotako 111 erantzunetatik, 30 lagunek aldizkaria bere horretan gustuko dute. Hala ere, balorazio negatibo gutxi batzuk bidali dituzte, eta deskalkifikazioak ere izan dira: “panfleto politikoa” edo “ezker abertzalearen bozgorailua” izatea leporatu diote astekariari.
- ◀ Erantzuleen %94ari BARRENEk gertuko informazioa ematen duela gustatzen zaie gehien.
- ◀ Hizkuntzari dagokionez, gehiengoak ondo ulertzen du BARRENEko euskara. Hala ere, erantzuleen %7k gazteleraren presentzia eskatzen dute. %5ak, berriz, BARRENEk Elgoibarko euskalkia gehiago erabili beharko lukeela nabarmendu dute.
- ◀ Ildo editorialaren gainean, %5ak ezker abertzalearen aldekoa dela uste du. Gainontzekoek ez dute ildo editorialari buruzko erreferentziarik egin.
- ◀ Atalei buruz galdetzean, gehienek iritzi atalak dituzte gustukoak: zozoak beleari, nire txanda, eskutitzak...

Astekariari eta atari digitalari buruzko azterketa sakona egiteari ekin dio BARRENEk, aurrera begira eman beharreko pausoak zehazteko. Horretarako, kultura, gizarte eta politika alorretako hamabi eragilerengana jo du.

Eragileek, sentsibilitate ezberdinetakoak izan arren, beharrezkoa ikusten dute astekaria, batez ere, euskalduna eta gertukoa delako. Gainera, herriko gorabeheraz informatzeko balio duela nabarmendu dute. Askoren iritziz, gainera, herri-kohesiorako tresna egokia da.

Gehientsuenen ustez, BARREN partehartzailea eta plurala da, baina hainbat gabezia igarri dituzte: batetik aurpegi asko errepikatzen dira astekarian (gizarte, kultura eta kirol arloetan); bigarrenik, behar besteko arrakasarik ez du gazteen artean; eta hirugarrenik, gutunetan

herriko hainbat gairen inguruan jendeak ez dituela idazten.

Gehienek ez dute sentsibilitate politiko jakin batekin lotu. Hala ere, politikan dihardutenen ustez, egitekotan, norbere aurkari politikoari egiten dio mesede astekariari.

Eragileek, batez beste, 7ko nota jarri diote aldizkariari, eta gehienek uste dute Udalak diru-laguntza handiagoa eman beharko liokela.

ElgoiBARREN.net atari digitala oso ondo baloratu dute. Gehienbat, albisteengatik jotzen dute web gunera, berehala ematen direlako. Pena dute, erabiltzaileek komentario gutxi egiten dituztelako, baina erregistratu beharri ondo deritzote. Ia denen ustez, gainera, beharrezkoa da euskarazko produktuak interneten indartzea eta teknologia berriak aprobeztatzea.

Elkarrizketa zahatzak



Bide onetik goaz

Ainhoa Andonegi, BARREneko zuzendaria

BARREN astekaria egiten dugunok pozik egoteko arrazoiak baditugu orain. BARRENi buruzko ikerketa sakona egin berri dugu, irakurleek astekariari buruz daukaten iritzia ezagutzeko, eta nota onak atera ditugu azterketa horretan. 7,7ko batez besteko puntuazioa eman digute. Nire ikasketa garaian, oso nota ona zen hori, eta pozik gaude kalifikazio horrekin.

Kalifikazio horren zati bat, ordea, herritarrei eman behar diegu, eurek laguntzen digutelako astero-astero BARREN egiten. Elgoibar eta elgoibartarrak dira BARREneko protagonistak: txapela jantzi duen gaztea, perretxiko handi bat aurkitu duen gizona, mendi gailurrera iritsi den emakumea, edota Elgoibarren bizi den etorkina. Denek daukate lekua geurean.

Ezinbestekoak dira, baita ere, kexak ipintzera edo txaloak ematera etortzen direnak, zorion-agurrak bidaltzen dizkigutenak, eskutitzak eta iritziak idazteko ohitura dutenak, eta bestelako informazioa ekartzen digutenak. Jende askoren inplikazioa dago bari-xakuetan jasotzen duzuen orrialde horien atzean, eta hori ere eskertzekoa da. Izan ere, horiek guztiak gabe, ezinezkoa litzateke gure lana egitea.

Hamasei urte egin ditu BARREnek, eta ibilbide horretan ez da inoiz bakarrik egon. Proiektuaren bueltan jardun dutenen zerrenda luzea da, eta, gure partetik, zerrenda hori zabaltzen segitzeko ateak zabalik daude. Lanean jarraitu nahi dugu, elgoibartarrak informatzen segitu nahi dugu, eta oztopo guztien gainetik, astero-astero Elgoibarko etxeetan sartzen jarraitu

nahi dugu, zuen baimenarekin, jakina! Badakigu beti ez dugula asmatzen, akatsak eta hanka-sartzeak egin ditugu, eta aurrerantzean ere, egingo ditugu, seguruenik. Hala ere, herritarrek gure lana estimuan dutela erakutsi dute. Hamasei urteren ondoren, bide onetik goaz!

Amaitzeko, eskerrak ematea besterik ez zait falta. Hasteko, eskerrik asko lantaldeari, batzuetan hobeto eta beste batzuetan okerrago, lan giro bikaina sortu dugulako; eskerrik asko publikitate jarritz, gudan konfiantza erakutsi duten guztiei; eskerrik asko dirulaguntzak eman dizkiguzuenoi; eskerrik asko, BARREnen ibilbidean bertako langile izan zareten guztioi, eta eskerrik asko, batez ere, astero-astero BARREN egiten laguntzen diguzuen herritar guztioi.

ESKERRIK ASKO
ikerketa-lan hau egiteko zuen erantzunak eta iritziak emateko prest egon zareten irakurle eta herritar guztioi. Sorreratik, denon artean egin dugu BARREN, eta, gaurtik aurrera ere, denon artean hobetuko dugu.

Vitoria-Gasteiz

Gipuzkoa,

garai berri bat

Eibar-Vitoria/Gasteiz autopista.
Gipuzkoaren historiako inbertsiorik
handiena gure segurtasunaren
eta erosotasunaren zerbitzura.



500 m AP-1

Eibar 
Vitoria - Gasteiz

Eibar

Urruzunoko jaiak eta Sanmigeldarren Eguna ospatuko dituzte asteburuan

Janik eta edanik ez da falta izango

Udaberriko eguraldi epelak hasia- rekin batera hasten dira herri eta auzoetako jaiak ere: Trinitate Jaiak izan ziren joan den asteburuan, eta orain datorren honetan, Urruzuno auzokoan eta Aiastia-San Migel auzokoan txanda izango da.

Bazkaria eta afaria

Bihar, zapatua, Urruzuno auzokoek euren jaiak ospatuko dituzte. Arratsalde- reko antolatu dituzte ekimenak. Domekan, berriz, Aiastia-San Migel auzokoan txanda izango da.

Euskal Herriko edozein puntuko jaietan ohitura den moduan, jatorduak antolatu dituzte egitarauaren barruan: afaria egingo dute Urruzunon, eta bazkaria sanmigeldarrek. Erromeriak ere ez dira falta izango.



URRUZUNOKO JAIAK

16 ZAPATUA

17:30 meza

Ondoren, luntxa soinujoleekin.

21:00 afaria

SANMIGELDARREN EGUNA

17 DOMEKA

12:00 meza nagusia auzoko hildakoen alde. Bereziki Jose Luis Ansola eta Borja Uzuriagaren omenez.

Ondoren, salda eta txorizoa.

13:00 Aiastia-San Migel auzokoan pilota partida.

14:00 bazkaria auzoko sukaldariek prestatuta.

Ondoren, dantzaldia Elustondo anaia-arrebekin.

San Bartolome Jaietako azalaren lehiaketa eta haurren kartel lehiaketa martxan daude



San Bartolome Jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa eta haurren kartel lehiaketa martxan jarri ditu Udaleko Kultura Batzordeak. Azalaren lehiaketan, 18 urtetik gorakoek bakarrik hartu dezakete parte, eta *Elgoibar*, *San Bartolome Jaiak 2009* jarri beharko du.

Teknika librea izango da, eta lanaren neurria A2koa izango da. Irabazleak 600 euro irabaziko ditu, eta 300 euroko sari berezi bat ere emango dute. Irabazlea elgoibartarra izanez gero, sari berezia Elgoibarko bigarren sailkatuak jasoko du.

Umeen kartel lehiaketan 18 urtetik beherakoek har dezakete parte, eta dirua ez den sei sari banatuko dituzte.

Teknika librea erabili ahal izango dute, baina derrigor *San Bartolome Jaiak 2009* jarri beharko du.

Lanak emateko, Kultur Etxera joan behar da, eta epea uztailaren 7an amaituko da, 13:00etan.

Musika bandak kontzertua eskainiko du domekan

Elgoibarko Udala Musika Bandak sei pieza eskainiko ditu domekan joko duen kontzertuan. Hileroko emaladia Herriko Antzokian izango da, eta 12:30etan hasiko da. Egitaraua honakoa izango da:

1. *Brisas de Malaga*, pasodoblea (P. Markina).
2. *Raymond*, obertura, (A. Thomas).
3. *Porgy and Bess*, selekzioa (G. Gershwin).
4. *Doña Francisquita*, fandangoa (A. Vives).
5. *Santana y Portrait*, (G. Gazzani).
6. *Jaque-Mate*, martxa (Txomin Mujika).

Kontzertuko azken abestia, *Jaque-Mate*, Zubi-Ondo elkartearen sorreraren 50. urteurrena ospatzeko martxa da. Txomin Mujika elgoibartarrak sortutakoa da.



HASIER LARREA

Haundiko jokalaria

Hasier Larrea elgoibartarrak 21 urte ditu, eta Haundiko jokalaria da. Taldean egin duen lehen urtea izan da, eta ez du batere marka makala egin: izan ere, bederatzizko gol sartu ditu. Aurrez Realean lau urte egin zituen kadete mailan hasita, eta orain herriko taldean ari da. Denboraldia jokalaria berriekin hasi zuen Haundik, eta hasierako asmoak apalagoak baziren ere, ia-ia mailaz igotzea lortu dute. Ez da gutxi mutilek egin dutena.

“Egin dugun denboraldi onaren saria izan da igoera fasean sartzea”

Zelakoa izan da zure lehen urtea Haundin?

Gazteenetakoa naiz taldean, eta hasieran ez nekien jokatu nuen ala ez. Minutu batzuk jokatzeko asmoa neukan, eta azkenean denboraldiko partida guztietan titularra izan naiz, eta oso ondo.

Denboraldi hasieran lesioak egon ziren taldean, eta horri esker-edo eduki duzue gazteok jokatzeko aukera...

Denboraldi hasieran bi aurrelarik lesioak eduki zituzten, eta beste aurrelariontzat aukera bat izan zen, bai.

Haundik egin dituen gol gehienak, hiru jokalariren artean sartu dituzue. Horieta bat zara zu.

Taldean gol gehien egin dituztenetatik bigarrena naiz: bederatzizko gol sartu ditut. Hirugarren mailan jokatu dudana lehen aldian bederatzizko gol sartzea ondo dago. Ez nituen horrenbeste espero. Baina badakit gehiago sartu ahal nituela, eta barruan geratu zait hori. Hurrengoan, gehiago sartzea nahiko nuke.

Talde gaztea osatzen duzue jokalariek. Hori zer da, ona ala txarra?

Denetik dago, baina oro har gaztea da taldea: 23-24 urteko batz bestekoa egongo da. Hori ona eta txarra da aldi berean. Beteranoek pisu handia daukate taldean, *txakur zaharrak* dira; badakite noiz eta zelan jokatu. Bestalde, aurtun etorri garen guztiok gazteak gara, bes-

te kategoria batzuetatik gatoz, eta gogo eta ilusio askorekin, gainera. Azkenean hori ere positiboa da.

Hiru jokalaria bakarrik zarete elgoibartarrak. Zergatik?

Ez dakit zergatik den. Hala ere, ez dut uste maila faltagatik denik, hiru elgoibartarrok partida guztiak jokatu ditugulako.

Zuen mailako taldeen artean gutxien kobratzen duenetako bat da Haundi. Beste talde batera joateko nahikoa arrazoi da hori?

Gutxiago kobratzen dugu, klubak ekonomikoki ezin duelako gehiago eskaini. Baina jendeak ez du dirua bakarrik baloratzen. Gure taldean badaude aldagelako giro ona dirua baino gehiago baloratu dutenak.

Denboraldi hasierako helburua mailari eustea zen, eta ia mailaz igo zarete. Zelako esperientzia izan da?

Sekulakoa izan da. Taldea eta entrenatzailea berriak izanda, eusteko lan mordo egin behar genuela argi geneukan. Azkenean gauzak ondo joan dira, eta urte amaieran *play off*-ean sartzea lortu genuen. Egin dugun denboraldi onaren saria izan da igoera fasean sartzea. Pena izan da Burgosek gu baino hobeto jokatu gabe 2-0 irabazi zuelako; bueltan guk oso ondo jokatu 1-0 irabazi genuelako, eta gol bateko diferentziagatik kanpoan geratu garelako. Emaitzak hor daude, baina guk egindako urtea eginda, saria izan da.

Emakumeak eta kirola uztartzeko ekitaldiak antolatu dituzte biharko

Emakumeen Birako etapa 18:30 inguruan amaituko da Mintxetan

Elgoibarko Udalak eta herriko hainbat kultur taldek *Emakumea eta kirola* eguna antolatu dute, biharko. Aurten, gizon eta emakumeen berdintasunerako plana onartu dutenez, egokia iruditu zaie Udaleko arduradunei horrelako eguna antolatzeari.

Ekitaldi nagusia Emakumeen Birako etapa izango da. Lagun Taldea txirrindulari elkartearen laguntzaz antolatu dute biharko etapa. Arratsaldeko 16:30ean hasiko da Plaza Handian, eta 79 kilometroko ibilbidea egin ondoren, helmuga Mintxetan izango da 18:30ean. Txirrindularien artean, Claudia Haussler eta Tatiana Guderzo dira favorito nagusiak.

Horrekin batera, Sanlo eskubaloitako taldeak nesken arteko norgehiagoka antolatu du. Euskadiko nesken selekzio jubenila Elgoibarko Tecnifuelle taldearen kontra jokatu du kiroldegian, 12:00etan hasita.

Beste ekintza batzuk

Kirol ekitaldi horiez gain, beste ekintza batzuk egingo dira biharko eguna biribiltzeko: LH1 eta LH6 arteko ikasleek *Emakumea eta kirola* lemapean marrazki lehiaketa egin dute. Lan horiek udaletxeko arkupeetan jarriko dituzte ikusgai bihar goizean, eta Emakumeen Birako etapa amaitu aurretik banatuko dituzte sariak, Mintxetan. Kurtso bakoitzeko sari bakarra emango dute, eta irabazleak bizikleta eta maillota jasoko ditu.



Eneritz Iturriaga abadiñoarra izango da biharko protagonistetako bat.

Bien bitartean, Gaztelekuko eta Kuadrillategiko gazteek mural bat margotuko dute Mintxetako horman. Bertan, emakumea eta kirola uztartzeko dituzte.

Igerilekuen irekiera

Bestalde, uda denboraldia iritsi da Mintxetara, eta aire libreko igerilekuak domekan zabalduko dituzte. Hasieran zapatuan zabalteko asmoa zeukaten, baina egun bat atzeratu dute irekiera.

Mintxetako atletek maila ona erakutsi dute Azkoitian



Azkoitiko atletismo probetan parte hartu zuten joan den asteburuan Mintxeta atletismo taldekoek, eta beste behin ere marka onak egin dituzte. Haizea Sanchez, Ainhoa Etxeberria, Unai Arregi, Lorea Santiago eta Iñaki Sagarnak lehen postuak lortu zituzten. Ioar Urkiri, Nora Mandiola eta Nerea Peralesek bigarren postuak lortu dituzte, eta Maria Arrietak hirugarrena. Bestalde, Iñaki Sagarnak Espainiako Txapelketako kadete mailan parte hartuko du bihar Euskadiko Selekzioarekin. 1.500 metroko oztopolasterketan hartuko du parte elgoibartarrak.

Lagunarteko taldekako xake txapelketa egingo dute bihar

Elgoibarko Lerun xake taldeak eta Kirol Patronatuak elkarlanean lagunarteko taldekako xake txapelketa antolatu dute. Txapelketa antolatzen duten 23. aldia izango da aurten. Bihar, 16:30ean, Lerun jatetxean egin dute hitzordua.

Bost minutuko partida azkarak jokatuko dituzte, eta liga erra: guztiek guztien kontra. Hainbat herritako hamalau taldek hartuko dute parte, tartean, Elgoibarko bik. Guztira 40 lagun inguru izango dira xakean arituko direnak.

Iaz Tolosako taldeak irabazi zuen, Logroñoko bigarren sailkatu zen, eta Elgoibarko taldea –Mikel Leon, JM Navarro eta Ivan Fernandez– hirugarren.

Elgoibar kiroldegi erraldoi bihurtuko da domekan ate irekien jardunaldiarekin

Hainbat kirol egin ahal izango da, tartean, kirol egokitua

Kiroleko Ateak Zabalik eguna egingo dute domekan, hilak 14, Elgoibarren. Herriko hainbat puntutan kirola egiteko aukera edukiko dute herritarrek, eta doan, gainera. Ekimen horrekin bat eginda, kirol egokitua ezagutzera emateko jardunaldia ere antolatu dute.

Leku Eder plazan eta Mintxetan saskibaloia, areto futbola, arku-tiraketa, tenis txapelketa, padela eta beste hainbat kirol egiteko aukera egongo da.

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazio-ko kideak ere etorriko dira herrira. Plaza Handian eta Leku Ederren hainbat joko eta kirol egingo dituzte 10:30etik 13:30era: euskal pilota egokitua gupil aulkian, saskibaloia gupil aulkian, itsuentzako goalball, xakea, txirindularitza egokitua eta urpeko jarduerak egingo dituzte goizean.

Arratsaldean, berriz, 15:30etik 18:30era, sentsibilizazio jarduerak, umeen jolasak, eta umeen festa egingo dituzte Patxin eta Patxin pailazoekin.

Antolatutako kirolak urritasuna dutezantzat egokituak izan arren, gainerako



herritarrek ere parte hartu, eta integratzeko dei egin dute antolatzaileek.

Urte osoan ekintzak

Elgoibarko Udaleko Gazteria, Ongizate eta Kiroleko Sailek elkarlanean herrian urritasuna dutenak bat baino gehiago direla ikusi zuten, eta horren ondorioz, kirola egiterako orduan ez zutela gainerakoek dituzten aukera berdinarik. Horri irtenbidea emateko, igeriketa ikastaroak ematen hasi ziren, eta aurrera begira ere, urtean zehar beste hainbat ekintza antolatuko dituzte.

Finalista Eguna berrikuntza batekin dator domekan: rolleski igoera egingo dute San Pedro-Idotorbera

Domekan, hilaren 14an, Finalista Eguna egingo dute Morkaiko Mendi Elkartek antolatuta. Urtean zehar mendiak igotzeko esfortsuaren ordainetan dominak jasoko dituzte mendizaleek. Aurten, gainera, berrikuntzarekin dator eguna: rolleskia.

Eguneko ekimenak 10:30ean hasiko dituzte, umeekin San Pedro-Idotorbera irteera egingo dute. 11:30ean rolleski irteera hasiko dute, 12:00etan domina banaketa egingo dute, eta 13:00etan, bazkaria.

Rolleski igoera ez da lehiaketa izango: "erakusketa izango da, eta horregatik, helmugan ez ditugu denborak hartuko. Partehartzaileen artean gazta bat zozkatuko dugu", azaldu dute.

Ibilbideak zailtasun ertaina duela azaldu dute antolatzaileek, baina, nahi duenak, erdia egiteko aukera edukiko du. Elgoibartik 1,5 kilometrora dagoen Herrigaineko erdi puntuan edarien postua jarriko dute, eta hortik hasteko aukera ere eman dute.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

Debarroko txapelketa

Arrasate **22** – Lagunak **14** (Jub.)

Lagunak txapelketa. Finalaurrekoak

Igartua **17** – Larreategi **18** (Benja.)

Beristain **18** – Astigarraga **15** (Benja.)

Arakistain **18** – Larruskain **6** (Ale.)

Idigoras **18** – Larrea **8** (Ale.)

Gurrutxaga **18** – Agirrebeña **13** (Inf.)

Calvo **18** – Leiaristi **9** (Inf.)

AGENDA

ESKU PILOTA (Plaza Handian)

Barixakua, **12**

18:00 E. Beristain – Larreategi (Benj.)

Ondoren Odria – Beraza (Ale.)

Ondoren Arakistain – Idigoras (Ale.)

Ondoren Gurrutxaga - Calvo (Inf.)

Gipuzkoako Hiru Txirlo

Txapelketan bigarrena

Iker Izagirre elgoibartarra

Amaitu berri dute Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa, eta lehenengo mailan bigarren postuan sailkatu da Elgoibarko San Migel auzoko Iker Izagirre. Haren atzetik, hirugarren geratu da auzo bereko Xabier Loiola.

Beste hainbat maila ere egon dira txapelketan, eta guztietan parte hartu dute elgoibartarrek. Hala, emakumeen mailan Aitziber Olaizola bigarren sailkatu da; jubeniletan Julen Ibarluzea txapelduna izan da, eta Joshua Lizundia bigarrena; eta infantiletan Jon Ibarluzea lehen sailkatu da, eta Maialen Loyola hirugarren.

Xabier Loiola eta Angel Ibarluzeak osatutako bikotea bigarren sailkatu da, eta taldeka, San Migel A hirugarren geratu da, eta San Migel B laugarren.

Amaitzeko, Xabier Loiolak Lehendakari Saria jaso du.

LANA

ESKAERA

- Emakumea, lanerako prest. Pertsona nagusiak zaintzeko prest eta tabernak edo lokalak garbitzeko prest. **☎ 671 476 869**
- Neska euskalduna etxeko lana egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Jai egunetan ere bai. **☎ 676 876 408**
- Emakumea zerbitzari lanerarako, haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. **☎ 617 056 828**
- Ingeles klaseak ematen dira ekainean eta uztailean, goizez. **☎ 679 113 446**
- Emakumea, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest edo garbiketa lanak egiteko prest. Arratsaldez edo gauzez. Geriatria kurtsoarekin. **☎ 646 235 195 / 943 531 903**
- Klase partikularrak ematen dira uztailean goizez. LH eta DBH. **☎ 688 664 727**
- Emakumea, nagusiak zaintzen interna, externa, orduka edo gauzez lan egiteko eskaintzen da. **☎ 699 813 826**
- 17 urteko neska euskaldun arduratsua udan goizez edo arratsaldez lan egiteko prest, umeak zaintzen, eskolarako errefortzua barne edo etxeko lanetan aritzeko. **☎ 608 686 814 / 943 741 674**
- Mutil gaztea, sukaldaritzan, zerbitzari lanetan edo zalmalantarako prest. **☎ 664 055 503**
- Mutil gaztea, sukaldaritzan, zerbitzari lanetan edo zalmalantarako prest. **☎ 617 005 381**

- Neska gazte bat, zerbitzari lanak, haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. **☎ 697 824 727**
- DBH eta LHko Matematika eta Gaztelaniako klase partikularrak ematen dira uztailean, goizez. **☎ 943 744 206**
- Klase partikularrak ematen dira ekaina eta uztailean. Hikuntzak eta LH-DBHko ikasgaiak. **☎ 658 045 119**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest, arratsaldeko 15:00etik aurrera. **☎ 943 743 251**

ESKAITZA

- Sukalde laguntzailea eta kamareroa behar da as-tebururako. **☎ 943 121 262**
- Sukaldari laguntzailea eta zerbitzaria behar dira. **☎ 943 743 196**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- 3 logelako etxebizitza bat hartuko nuke errentan Elgoibarren. **☎ 618 163 061**
- Etxebizitza alokatzen da Culleran (Valentzia). Uztailea eta abuztua. Hondartzatik gertu. **☎ 943 743 510**
- Apartamentua alokatzen da Benidormen. Erdigunean. Prezio onean. **☎ 943 740 628**
- Apartamentua alokatzen da La Matan (Torrevieja). Hondartza parean. Hamabostaldiak edo asteak solte. Prezio onean. **☎ 659 621 307**

LOKALAK

- Garaje itxia salgai Jausoro plazan. Plaza Handitik gertu. 16 metro karratukoa. Prezioa: 23.500 euro. **☎ 615 787 748**
- Mugerza kalean garaje itxia alokagai. **☎ 943 743 339**

MOTORRA

- Lau laguntzako karabana salgai. Egoera onean. 2.500 euro. **☎ 679 408 078**
- Bost ateko VW Polo 1.4 gasolina salgai, 5 urtekoa oso gutxi erabilia, gris metalizatua, aire girotu, oso ondo zaindua, beti garajeen, 22.000 km bakkarririk! 7.000 euro. 675 007 661 (Dorleta). **☎ 652 716 709**

BESTELAKOAK

- Trinitateko igandean 2 erroberako patinetea galdu zen plaza inguruan, lauki zuri-beltzak ditu. Sarituko da. **☎ 943 742 574**
- Etxeko altzariak, elektro tresnak eta etxeko erropak behar dira. **☎ 676 444 171**
- Setter ingeles arrazako txakurkumeak saltzen dira, apirilaren 17an jaiotakoak. Guraso ehiztariak. **☎ 625 708 042**
- Bikotarentzako logela saltzen da, ohea, armairua eta koltziorekin. 2 urte ditu. **☎ 656 788 122**

UDAL EUSKALTEGIAK

WANTED

- Persona major de 16 años
- Gizona edo emakumea
- Nativo o inmigrante
- Ikaslea, langilea, langabea edo jubilatua
- Y...con ganas, voluntad o necesidad de aprender euskara

UDAL EUSKALTEGIAK
www.udaleuskaltegiak.net

27 urte euskara irakasten. Todos los niveles. 43 sentsu. HAZTEKO diplomak. Horarioz personalizados. Bekak...

MATRÍCULA ZABALIK **UDAKO IKASTAROAK** **MATRÍCULA ABIERTA**

Titulu ofizialak

UDAKO IKASTAROAK

Titulu ofizialak

2009ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

EGA LORTZERIKO IKASTARO BEREZIA

Lortzaia-Itala

Ebaneraren 29tik uztailearen 24ra. 3 ordu egunetan.
Irailaren 7tik 18ra. 2 ordu egunetan.

PREZIOA: 110 euro
Ikasle eta langabesentzako prezioa: 67,50 euro.

Bekaketa sistema.

MATRİKULALDIA:
ektararen 25era arte

EGAZTEZALARRIA

1. 2. ETA 3. MAILA LORTZERIKO IKASTAROAK
2. Dekaldiriko azterketak

Irailaren 7tik azararen 19ra. 2 ordu egunetan.

PREZIOA: 150 euro
Ikasle eta langabesentzako prezioa: 86 euro.

Bekaketa sistema.

MATRİKULALDIA:
irailaren 4ra arte

Dekaldiriko azterketen irakaskuntza

25.

urteurrena

DEBABA UDAL EUSKALTEGIEEN MANKOMUNITATEA
Nafarroa Enparantza 2
20570 ELGOIBAR
Tel./Fax: 943 74 27 31
E-posta: elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net



• Zorionak, **Pobxoli**, 2 urte. Pa! Lurdes eta Manuel eta Monika eta Rober, eta bereziki Dunaren partez.



• Zorionak, **Iker**, sei urte. Aita, ama, lanire eta Aramaikoen partez. Sei muxu potolo zuretzako.



• Zorionak, **Alain**, 2 urte. Ondo pasa martitzenean Elgoibarko izeba-osaben partez. Muxu handi bat.



• Zorionak, **Juan**, gaur bi urte egiten dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Olga**, zure lehenbiziko urtebetetzean. Muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **Irantzu**, urte potolo bat egin duzulako. Muxuak etxeko partez, bereziki Axular eta Luken.



• Zorionak, **Irufeko Aitorri**, gaur urtebete egiten duelako. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Oihane maiteal** Ya 7 urte eeeehh! Ondo pasa eguna, familia guztiaren partez, bereziki Mikel.



• Zorionak! Zure nesken partez. Ondo pasa eguna!



• Zorionak, **Maitanell** Eguaztenean 2 urtetxo bete zenituen. Muxu asko guraso eta Lorenaren partez.



• Iritsi da zuen eguna! Ondo pasa lagun guztien partez!



• Zorionak **Alex** zure urtebetetzea izan delako. 4 muxu familiakoen partez, bereziki Mikelen partez.

QHARRA

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza edo handiagoa: 5 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

Gorbea
TABERNA - JATETXEA
ALOKATZEN DA
 Santa Ana 10, behea • Tel.: 626 984 580


MEKANOSA
 Errosario, 27
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

OKINDEGIAK

14 domeka **EZAGIRRE**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

12 Etxeberria (Errosario)
13 Ibañez
(*Goizez Yudego)
14 Ibañez
15 Garitaonandia
16 Etxeberria (Santa Ana)
17 Fernandez
18 Yudego
19 Fernandez

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBAREN.net



12 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, 2tik 6 urtera arteko umeentzako eta euren gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian.

Erakusketa

19:00 Egur arte tailerra

Kurtsoan zehar Egur arte tailerlean egindako lanen erakusketa. Kultur Etxean.

13 zapatua

Urruzunoko jaiak

17:30 Meza

Ondoren, luntxa, trikitalariekin.

21:00 Afaria

Emakumeak eta kirola

11:00 Marrazki erakusketa

LH1 eta LH6 arteko ikasleek eginiko marrazkien erakusketa jarriko dute udaletzeko arkupeetan. Egun osoan zehar egongo dira lanak ikusgai, eta arratsaldeko 18:00ak inguruan egingo dute sari banaketa Mintxetan.

12:00 Eskubaloit partida

Sanlok antolatuta, Euskadiko nesken selekzio jubenila Elgoibarko Tecnifuelle taldearen kontra. Olaizaga kiroldegian.

15:00 Mural pintaketa

Gaztelekuko eta Kuadrillategiko gazteek, *Emakumea eta kirola* lemapean, murala margotuko dute Mintxetan.

16:30 Emakumeen bira

Emakumeen Birako etaparen hasiera, Plaza Handian. Helmuta 18:30 inguruan izango da, Mintxetan.

Xakea

16:30 Xake lehiaketa

Lerun Xake taldeak antolatuta, lagun arteko xake txapelketa izango da. Lerun jatetxean.

Musika

20:30 Perkusio taldearen kontzertua

Elgoibarko Perkusio Taldeak kontzertua eskainiko du San Bartolome parrokan.

Egitaraua:

- Lehen zatia
 1. *Common man* (A Copland)
 2. *Normandy beach* (David Gillingham)
 3. *Queen os Saba* (Haendel)
 4. *Eperra* (Nico Etxart)
 5. *La bamba* (W. Cahn)
- Bigarren zatia
 1. *Carmina Burana* (Carl Orff)

14 domeka

San migeldarren eguna

12:00 Meza

Meza Nagusia, auzoan hildakoen alde, bereziki, Jose Luis Ansola eta Borja Uzuriagaren omenez.

Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute.

13:00 Pilota partidak

Auzotarren artean.

14:30 Bazkaria

Auzoko sukaldariak prestatua.

Ondoren, dantzaldia

Elustondo anai-arrebekin.

Irteera

9:00 Kalamuara irteera

Altzolako Zubibai elkarteak antolatuta, Kalamuara egingo dute irteera.

Kirola

10:00 Ate Irekiak kirolari

Egun osoan zehar, hainbat kirol praktikatzeko aukera izango da Leku Ederren eta Mintxetan.

Finalista Eguna

10:30 San Pedrorra igoera

Plaza Handian elkartuko dira umeak, San Pedrorra igotzeko.

11:30 Rolleski igoera

Plaza Handitik irtengo dira parte hartzaileak.

12:00 Domina banaketa

Eginiko mendien arabera, dominak banatuko dizkiete umeei. San Pedron.

Ondoren, bazkaria

Kirola

10:30 Kirol Egokitua

Plaza Handian eta Leku Ederren hainbat kirol praktikatzeko aukera izango da, eguerdira arte. Arratsaldean hainbat jolas eta Potxin eta Patxin pailazoan emanaldia izango dira.

Musika

12:30 Udai Musika bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.

«Angeles y demonios»

12, barixakua: 22:15
13, zapatua: 19:00/22:15
14, domeka: 19:00
15, astelehena: 21:30

Estatu Batuak 2009. Zuzendaria: Ron Howard. Aktoreak: Tom Hanks, Ewan McGregor, Stellan Skarsgard. 140 minutu.

Robert Langdon erlijio sinboloen ira-

kasleak aspaldiko sekta sekretu bat aurkituko du, eta Vatikanoa arriskuan dagoela jakingo du. Vittoria Vetra zientzialariarekin batera, duela 400 urteko sinboloen atzetik ibiliko dira.



Gure gomendioa

Egur arte tailerraren erakusketa

Ekainak 12, 19:00etan

Egur arte tailerrean urtean zehar eginiko lanen erakusketa inauguratuko da gaur, Kultur Etxean. Hilaren 26ra arte egongo da ikusgai. Bisita orduak, astegunetan 19:00etatik 21:00etara izango dira, eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara.



GIDA KOMERTZIALA

2009-2010

Gida komertziala prestatzen ari gara, zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:

943 743 704

edo helbide honetara idatzi:

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Zerikasi

IKASTAROAK

E-administrazioa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Kantsultatu

Hasiera data: 2009-06-15 / Bukaera data: 2009-06-26

Non: Elgoibarren

Izenemate bukaera: Kantsultatu (943 748 828)

Bachen loreak

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Elebietan

Noiz: Ekainaren 27an

Non: Eibarren

Izenemate bukaera: Kantsultatu (902 760 907)

Heziketa emozionala

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Euskaraz

Hasiera data: Ekainaren 29an eta 30ean

Non: Eibarren

Izena emateko: Kantsultatu (943 821 426)

Hip-hop ikastaroa

Norentzat: Gazteentzat

Hizkuntza: Ikasleen arabera

Hasiera data: 2009-07-01

Non: Elgoibarren

Izenemate epea: Ekainak 22 (Informazioa: 943 744 415)

Sakonera gutxiko buzea

Norentzat: Igerian dakitenentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-08-01

Non: Mutrikun

Izena emateko: Kantsultatu (943 195 088 - 617 333 003)

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

herritik kanpo



jonatan martin

Zinema ikasi nahi zuen Jonatan Martin elgoibartarrak, eta Madrilera joan zen estudioak burutzera. Lau urte daramatza bertan, eta beste pare bat ere egin nahi ditu han: “Bizi izateko ez da leku txarra”. Madrilen eta Elgoibarren arteko diferentzia nabarmenena erritmoa dela dio gazteak, lasaitasuna falta zaiola hiriri. Gustura bizi da, baina herrimina ere badauka.

“Madrilen mundu osoko kulturak ezagutzeak ez dauka preziorik”

Jonatanek Madrilen ateratako argazkiak



Cibeles



La puerta de Alcalá



Las torres Kio

Madrilen bizi zara, noiztik? Eta noiz arte?

Laster lau urte egingo ditut Madrilen, eta noiz arte, ez dakit. Baina beste urte pare bat seguru. Bizi izateko ez da leku txarra.

Zertara joan zinen?

Zinema eskola batera etorri nintzen, zinema zuzendaritza eta produkzio diplomatura egitera. Hori dela eta, pila bat gauza ikasi ditut: gidolaritza, muntaia, argazkilaritza, soinu teknika, zuzendaritza artistikoa, aktore zuzendaritza... Baina onena, praktikak izan dira. Film laburrak idatzi, muntatu, ekoiztu eta grabatzen ditugu, besteak beste. Aste honetan, gainera, ikasketetako azken praktika grabatu dugu, eta nahiko pozik gelditu naiz.

Zer egiten duzu egunerokotasunean?

Madrilgo bizitza ordaintzeko, lana, noski. Hiru urte daramatzat Starbucks Coffee-n *store manager*, eta hemen ere mila gauza ikasi ditut. Lisboan izan nintzen hango merkatua irekitzen laguntzen, formazioa ematen diet *partner* berriei eta noizbehinka bideoren bat egiten dut. Lan egiteko leku ederra da. Lanetik aterata, Madrilék aukera pila bat ematen ditu denbora pasatzeko, kristoren parkeak, zineak, hainbat taberna gune, lagunekin denbora pasatzeko leku mordoxka... eta hiritik kanpora joatea nahi baduzu, Madrilgo mendialdea oso ederra da. Gainera, penintsula erdian egonda, edonora joan zaitezke lau edo bost orduan kotxez. Askok gustatzen zait argazkiak ateratzea ere. Flickr-eko argazkilaritza talde batean nago, eta ia astero

irteten dugu gure kamerekin Madrildek, Tole-dora, Segoviara...

Zer ezberdintasun daude Madril eta Elgoibarren artean? Eta berdintasunak?

Bizitza nahiko antzerkoa da: lana, ikasketak, lagunak... Baina benetako diferentzia erritmoa da. Madrilen beti gabiltza gora eta behera, metroan, autobusean, kotxean... puff! Hori bai, inoiz ez ditut ikusi Madril bezain beste kotxe. Nik autoa daukat hemen, eta dagoeneko harrapatu diot trukua Madril gendatzeari. Elgoibartik etortzen den jendeak oso handia dela esaten du, baina hori hasieran da; distantziak ez dira oso handiak.

Herriminik bai?

Bai, noski. Lasaitasunagatik batez ere. Familia eta lagunak etorri daitezke hona edo ni Elgoibarrera joan. Baina lasaitasuna falta zaio hiri honi.

Zelakoak dira madrildarrak?

Madrildarrak? Ia ez dago madrildarririk hemen, jejeje... Gaur egun, bederatzi milioi pertsona bizi gara Madril, eta, planetako beste hiri handiak bezala, Madril hiri multikulturala da: mundu osoko jendea ezagutu dezakezu. Eskolan adibidez, 20 nazionalitate ezberdin dauzkagu, eta lanean, gure Starbucksen madrildar bat besterik ez dago. Gauza ikaragarria da, hiri berebean egonda, mundu osoko kulturak ezagutzeak ez dauka preziorik. Horregatik, ez da zaila Madrilgo bizimodura integratzea. Benetan gomendatzen dut hiri hau bisitatzea.



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Berri!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)
San Bartolome, 25
Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9
Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/
18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:
10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan:
20:00-21:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.
Tel.: 943 531 953
669 565 745
Goiz eta arratsalde .
Jausoro, 6 behea

OPTIKAK

Ikus optiko-optometriska

San Bartolome, 10 - Tel: 943 743 734
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00
Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 - Tel: 943 740 359
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.) San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) -Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
irale@irale.com
www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza, 5 behea
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

Beltia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak
Trenbide kalea 21, behea
Tel: 943 531 869

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25
Tel: 943 741 795
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30
15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.
- Neurriera egindako plantilak.
- Hanka diabetikoen zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.
San Frantzisko kalea, 20 behea
Tel: 943 741 645
Ordutegia:
9:30-13:30
15:30-19:30



AMETSA
Ametsa

EL GAUTXO
Gautxtoa

GABI
Ikurriña

ITURRI
Piper sorpresa

KING-KONG
Lehoi begetala

LANBROA
Ortutxo

LOJANTZI
Tenpura

MADIGAN'S
Tsunami

SALENTO
Kapritxo

PAULANER
TXARRIDUNA
Tinbala

Antolatzaileak:

GUREAN BAI

I.Pintxo Lehiaketa

Ekainak 26 eta 27

Ostirala 19:00 - 22:00 / Larunbata 11:30 - 14:30

Probatu pintxoak eta aukeratu gustukoena!

1 €



Laguntzaileak:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



Euskara eta Merkataritza
sailak



Gure denda gure poza !!